

2025eko maiatzaren 30a

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa

Artium Museoa

Vitoria-Gasteiz • Araba

[www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## CHANTAL AKERMAN. IRUDIARI AURRE EGITEA | FACING THE IMAGE



[Pantailaren kokapena Chantal Akerman-en *A Voice in the Desert* instalazioan. Argazkia: Robert Fenz / ADAGP 2025].

A1 aretoan, maiatzaren 30etik urriaren 19ra

**Komisarioa: Claire Atherton**

**Argitalpena (Hitzak #25): Chantal Akerman. Irudiari aurre egitea.** Claire Atherton-en eta Valentín Romaren arteko elkarrizketa bat barne, La Virreinan egina, *Encarar la imagen* (Bartzelona, 2023-2024) erakusketa zela eta.

**Inaugurazioa:** maiatzaren 30ean, ostirala, 18:00etan

Argibide gehiago: [www.artium.eus](http://www.artium.eus)

**ARTIUM  
MUSEOA**

## ARTIUM MUSEOAK *CHANTAL AKERMAN. IRUDIARI AURRE EGITEA* ERAKUSKETA AURKEZTU DU

Egile belgikarrak zinema-instalazioen arloan egindako lan aitzindaria da erakusketaren ardatza

Claire Atherton, urteetan Akermanen filmen editore eta kolaboratzailea da *Irudiari aurre egitea* erakusketaren komisarioa

Uztailean zinemagile honen lanari buruzko hiru eguneko mintegi bat egingo da museoan

Erakusketa dela-eta, Artium Museoak #Hitzak sailaren ale berri bat argitaratu du

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak, *Chantal Akerman. Irudiari aurre egitea* erakusketa aurkeztu du [A1 aretoan, 2025eko urriaren 19ra arte]. Erakusketak Chantal Akerman-en (Brusela, 1950-Paris, 2015) eta erakusketaren komisario Claire Atherton-en (San Francisco, 1963) arteko elkarlanetik sortutako instalazioetako batzuk ezagutzea proposatzen du. Erakusketa Bartzelonako La Virreina Centre de la Imatge espazioan aurkeztutako proiektuaren bigarren kapitulu gisa aurkeztu da. Erakusketa honen esparruan, Atherton bera eta Erika Balsom ikertzaile eta Londresko King 's Collegen ikasketa zinematografikoen irakaslea egongo dira uztailearen 14tik 16ra egingo den zinegilearen inguruko programa publiko batean. Era berean, erakusketa dela eta, Artium Museoak #Hitzak sailaren ale berri bat argitaratu du. Bertan, Claire Atherton-en eta La Virreina arte espazioaren arduradun Valentín Romaren arteko elkarrizketa bat berreskuratu da, Bartzelonako erakusketaren harira egina.

Chantal Akermani eskainitako erakusketa honek laurogeiko hamarkadaren erdialdetik haren filmen editorea izan zen Claire Atherton komisario eta zinemagilearen arteko lankidetzak estutik sortu ziren instalazioetako batzuk ezagutzea proposatzen du. Mugimendudun irudia eta argazkia biltzen ditu erakusketak, eta Bartzelonako La Virreina Centre de la Imatge espazioan 2023ko azarotik 2024ko apirilera bitartean aurkeztutako erakusketa-proiektuaren bigarren atalatzat har daiteke.

Aurkezpen berri honetan hasierako komisariotza-irizpideak mantendu dira, ikuslearen gorputza lanaren erdigunean jartzen duten egonaldien segida batetik abiatuta museoan barrena hedatzen den ibilbide batekin. Erakusketako artelanak ibilbide zirkular batean antolatu dira, irudia eta testua lotzen dituen ontzi komunikatzaileen sistema baten moduan, museoaren espazioa betez.

ekoizpen zinematografikoan gertatzen den bezala, pieza horiek denbora eta narrazio brikolaje gisa eraiki dira, eta erakusketako espazioa elementu aktibo gisa gehitzen zaio. Leku horretatik — pantailan gertatzen den bezala— harreman-modu berriak proposatzen dira, ikuspegi feministatik gizakiaren definizioa bera zalantzan jartzen dutenak.

Chantal Akermanen lanek, baita Artium Museoan ere, genealogiak eraiki eta proiektatzen dituzte, haren autobiografia osatzen duten emakumeen bizitzak (holokaustotik bizirik atera zirenenak) elkartzen dituzte Mexikoko migratzaileekin, ez bakarrik AEBetakoekin, baita Bruselako apartamentuan Akermanen ama zaintzen dutenenekin ere... Zaintza- eta lankidetzaren sare bat, pentsamendu politiko bat eta erakusketa honen jatorria den munduan zinemagile gisa kokatzeko modu bat zabaltzen dituen.

Erakusketaren esparruan, Artium Museoak #Hitzak sailaren ale berri bat argitaratu du, eta, horretarako, Claire Atherton-en eta Valentín Romaren, Bartzelonako La Virreina Centre de la Imatge-aren zuzendari artistikoaren arteko elkarrizketa luzea berreskuratu du, *Encerrar la imagen* erakusketa zela-eta Kataluniako espazioan eginga. Chantal Akermanen lanen Artium Museoan aurkezpenari buruzko testu batek, Beatriz Herráez zuzendariak idatziak, eta Vitoria-Gasteizen aurkezten diren instalazioen fitxa xehehek osatzen dute argitalpena.

Era berean, uztailearen 14, 15 eta 16rako, museoak mintegi ireki bat antolatu du, Chantal Akermanen lan zinematografikoa eta zinemari buruzko haren begirada pertsonala ardatz hartuta. Andoni Imaz, zinema komisario eta kritikaria, eta Arantza Santesteban, Artium Museoan Ikerketa eta Programa Publikoaren arduraduna, komisario direla, jarduera honetan Claire Atherton-ek (gaur aurkezten dugun erakusketaren komisarioak) eta Erika Balsom-ek (ikertzailea eta Londresko King's College-ko ikasketa zinematografikoen irakaslea, Taipei-ko Biurtekorako (2020) *Shoreline Movements* film-programaren komisarioa eta *TEN SKIES* (2021) eta *After Uniqueness: A History of Film and Video Art in Circulation* (2017) liburuen egilea) ere parte hartuko dute.

## Artium Museoan Erakusketak

***Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000).*** Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren Bilduma

***Asins, Oteiza, Palazuelo. Haraindikoa itxura ematea.*** Azterketa-kasu bat *Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)* bildumaren erakusketan

***Inés Medina. Ikerketa analitiko-plastikoa. 1978-1995.*** Ekainaren 1era arte

***Chantal Akerman. Irudiari aurre egitea.*** 2025eko urriaren 19ra arte

***Josu Bilbao. h.*** 2025eko azaroaren 30era arte

## Aurki

***Artelekun zehar. 1987-2002. Artxiboan oinarritutako Artelekuri buruzko erakusketa bat***  
Uztailearen 4tik aurrera